

P1. Zuzendaritza-lanak

Zuzendaritzaren denbora eta funtzioak. Hezkuntza-ikuskapenak eta Lehen Hezkuntzaren 1999 urteko eta DBHren 2000 urteko Ebaluazioek zuzendariek karguan daramaten denborari buruz, egiten dituzten funtzioei buruz eta izendatzeko moduari buruz emandako datuak jasotzen dituzte.

Datuetan ikusi ahal izango dugun bezala, Lehen Hezkuntzako zuzendarien %53ak hiru urte baino gutxiago daramatza karguan, baina sareen arabera aztertzen baldin badugu, ohartuko gara sare publikoko zuzendarien %87ak hiru urte baino gutxiago daramatzala karguan eta sare pribatuan, ordea, ehuneko hau %36ra jaisten da. DBHn, zuzendaritzen egonkortasuna handiagoa da, izan ere, zuzendarien %60ak 10 urte baino gehiago daramatza, honetan ehuneko berberak daude sare publikoan zein pribatuan.

Zuzendaritzak zenbait lan egiteko duen arduraldiari dagokionez, oro har, aski altua da kasu guztietan, organo kolegiatuen akordioak betetzea, ikastetxearen beharrak asetzeko neurriak hartzea eta hezkuntza-erkidegoa hartzea, entzutea eta bere iradokizunak bideratzea nabarmentzen direla.

Lehen Hezkuntzako zuzendaritzek karguan daramaten denborari dagokionez, Ikuskapen Teknikoak bildutako datuen arabera, 5,08 urteko batezbestekoa dago, halere, urte hauek ez dira berdin banatzen sare publikoan eta pribatuan (2,71 ikastetxe publikoetan eta 7,30 pribatuetan).

1999 urtean Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan zeuden zuzendarien izendapenari dagokionez, Eskola kontseiluak edo Ordezkaritza Handiko Organo batek izendatu du %43,5a, %56,5a, berriz, Hezkuntza-Administrazioak izendatu du. Ehuneko hauek hezkuntza-sarearen arabera aztertzen baldin baditugu erabat aldatzen dira, izan ere, ikastetxe publikoetan, izendapena Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Handiko Organoak egiten du beti, eta ikastetxe pribatuetan, aldiz, %20,1a bakarrik egiten du Ordezkaritza Handiko Organoak eta gainerako %79,9a Hezkuntza-administrazioak izendatzen du.

P1.1 Taula


Lehen hezkuntzako zuzendaritzek karguan iraun duten denborari buruzko datuak. 1999. urtea.

LEHEN HEZKUNTZA	GUZT	Publikoa	Hitzartua
Urteak Lehen hezkuntza	5	3	7

LEHEN HEZKUNTZA	GUZT %	Publikoa %	Hitzartua %
3 urte edo gutx	53	87	36
4-6 urte	22	6	18
7-9 urte	6	6	15
10 urte edo gehiago	19	6	30
Guztira	100	100	100

P1.1 Grafikoa

Lehen hezkuntzako zuzendaritzek karguan iraun duten denborari buruzko datuak. 1999. urtea.



Iturria: Lehen hezkuntzako ebaluazioa 1999. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila eta INCE


P1.2 Taula

Bigarren hezkuntzako zuzendaritzek karguan iraun duten denborari buruzko datuak. 2000. urtea.

DBH	GUZT	PUB	HITZART
3 urte edo gutx	10	8	12
4-6 urte	20	23	17
7-9 urte	10	10	10
10 urte baino geh	60	59	61
Guztira	100	100	100

P1.2 Grafikoa

Bigarren hezkuntzako zuzendaritzek karguan iraun duten denborari buruzko datuak. 2000. urtea.




Iturria: Bigarren Hezkuntzako Ebaluazioa 2000. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila eta INCE.

P1.3 Taula

Zuzendariek Bigarren Hezkuntzako hainbat funtziori eskaintzen dioten arduraldiari buruzko datuak.

	Zuzendariek Bigarren Hezkuntzako hainbat funtziori eskaintzen diote arduraldiari buruzko datuak					
	Bat ere ez	Gutxi	Zer bait	Nahiko	Asko	Batezb. %
A. Irakasleen aprobetxamendua bultzatu	0,0	11,5	29,5	38,5	20,5	73,6
B. Administrazio langileen aprobetxamendua bultzatu	5,1	12,8	29,5	39,7	12,8	68,5
C. Irakasle eta orientatzaile funtzioen efikaziaz informatu	2,6	5,1	12,8	56,4	23,1	78,5
D. Irakasleen arteko talde-lanak bultzatu	0,0	6,3	26,6	45,6	21,5	76,5
E. Irakasleen prestakuntzarako prozedurak sortu	0,0	12,8	32,1	39,7	15,4	71,5
F. Organo kolejiatuen akordioak abiarazi	0,0	0,0	1,3	32,9	65,8	92,9
G. Aurrekontu kontrol zehatz bat egitea	8,9	13,9	22,8	30,4	24,1	69,4
H. Ikastetxearen premiei erantzuteko neurriak hartu	0,0	0,0	0,0	48,1	51,9	90,4
I. Hobekuntza proiektuen martxa kontrolatu	0,0	3,8	5,1	50,6	40,5	85,6
J. Instalakuntza, material eta mobiliarioaren erabilpen ona bermatu	0,0	2,5	24,1	35,4	38,0	81,8
K. Goragoko mailako instantzien eskarieierantzun	0,0	2,5	13,9	35,4	48,1	85,8
L. Hezkuntza administrazioiko organoekin kolaboratu	0,0	1,3	12,8	48,7	37,2	84,4
M. Guraso elkar-teekiko komunikazioa mantendu	0,0	2,5	8,9	40,5	48,1	86,8
N. Familiak ongi informatu daitezzen prozedurak bultzatu	0,0	2,5	6,3	45,6	45,6	86,8
O. Hezkuntza komunitatea hartu, entzun eta iradokizunak bideratu	0,0	0,0	5,1	40,5	54,4	89,9


Iturria: Bigarren Hezkuntzako Ebaluazioa 2000. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila eta INCE.



IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

P1.3 Grafikoa

Zuzendariek Bigarren Hezkuntzako hainbat funtziori eskaintzen dioten arduraldiari buruzko datuak.



Iturria: Bigarren Hezkuntzako Ebaluazioa 2000. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila eta INCE.

P1.4 Taula


Lehen Hezkuntzako zuzendaritzek karguan duten egonkortasunari buruzko datuak.

LEHEN HEZKUNTZA	GUZT	Publikoa	Hitzartua
Urteak zuzendaritzan Lehen hizkuntza	5	3	7

Mailak	Ikast. batentzako %	Lau ikast. %
Lehen. Hez	53	47
Bigarren Hez	89	11
Nagusiak	93	7
Beste (konserbat., hizkuntzak...)	95	5

P1.4 Grafikoa

Lehen Hezkuntzako zuzendaritzek karguan duten egonkortasunari buruzko datuak.



Iturria: Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoa

P1.5 Taula


Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan zuzendaritza izendatzen duten moduari buruzko datuak. 2000-2001 ikasturtea.

Zuzendarien izendapena	
	Guztira %
Eskola Kontseiluak	44
Hezkuntza Administrazioak	56

Zuzendarien izendapena		
	Publikoa %	Hitzartua %
Eskola Kontseiluak	20	100
Hezkuntza Administrazioak	80	0

P1.5 Grafikoa

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan zuzendaritza izendatzen duten moduari buruzko datuak. 2000-2001 ikasturtea.



Iturria: Bigarren Hezkuntzako Ebaluazioa 2000. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila eta INCE.